



# 'ZUTIK EUSKAL HERRIA' AGIRIAREN AURKEZPENA

Tolosan gaur 20:00etan egingo dute batzarra Pleno Aretoan, bihar berriz, Villabona-Amasaren txanda izango da 4

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea  
2010-03-23**

VIII. URTEA 1959. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**FELIX IRAZUSTABERRENA** BERTSOZALEA

## «8.000 ikaslerentzako ari zara, erantzukizun aldetik ikaragarria da»

**ALEGIA** Oraintxe utzi du Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko lehendakari kargua; idazkaria izango da aurrerantzean

**HAMAR URTE** Elkartea bera sartu zenetik «ikaragarri» hazi dela dio; langile bat izatetik hamabi izatera pasa dira 7



L. GARCIA

## Basamortuen inguruko hitzaldia egongo da bihar

**TOLOSA** Amalur ekimenaren baitan Ander Izagirrek bere bidaien inguruan hitz egingo du 3



Ostiralean herriko gazteen arteko futbol partidak izan ziren. E. MAIZ

## Ernio-Gazume Europako ingurumen balio handiko guneen Natura 2000 sarean

**INGURUGIROA** Eremuaren baitan dauden herrietan informazio-batzarrak egingo dituzte; gaur Asteasuko Udalean bilduko dira 19:00etatik aurrera 5

## Gazte Festek eskaini dutenarekin «gustura» daude

**BERASTEGI** Urepelek antolatzen ditu urtero jaiak; gehienbat herriko jendeak hartu du parte 6

## Kirol emaitzak

### PILOTA

**Berria Txapelketa, finalerdia**  
(Aurrera-Saiaz/Aurrera)

#### KADETEAK

Labaka - Elustondo	7
A. Olano - M. Hernandezena	22

#### JUBENILAK

Urbietia - Zinkunegi	22
X. Jaunarena - J. Jaunarena	7

#### NAGUSIAK

Renobales-Galarraga	22
Iñaki Esain-Mikel Iriarte	15

**Finala, hilaren 27an Hernanin**

**AURRERA-SIAZ/GALDAKAO**

#### Zizurko Txapelketa, finalaurreak

#### KADETEAK

Anartz Olano (Aurrera)	18
-	5

#### Irurtzungo Txapelketa

#### BENJAMINAK

Goikoetxea-Txoperena (Aurr.)	18
--	6

#### ALEBINAK

Lezea-Salaberria (Aurrera)	18
-	9

#### Gravn Txapelketa

#### JUBENILAK

Jon Jaunarena (Aurrera)	22
Otamendi	16

#### Nafar Jokoak, finalak

#### KADETEAK

Xabi Eraso-Ibai Gil (Aurrera)	22
San Miguel E	16

#### INFANTILAK

X. Zubiria - A. Eskudero	18
San Miguel B	14

#### FUTBOLA

**Nafarroako Erregional Maila**  
Lagunak - Aurrera Leitza 1-0

#### SAILKAPENA

1. Ardoi (43 p.); 2. Lagun Artea	
----------------------------------	--

(42p.); 3. Avance (36p.); **12. Aurrera Leitza (24 p.)**

#### Erregional Ohorezko Maila

Aurrera Ondarroa-Tolosa CF 1-0

#### SAILKAPENA

1. Zarautz (54 p.); 2. Pasajes (54p.); 3. Aurrera de Ondarroa (53 p.); <b>4. Tolosa CF (45 p.)</b>	
--	--

#### 1. Erregionala Igoera Fasea

Amaroz KE-Vasconia - 1-3

#### SAILKAPENA

1. Lengokoak (25p.); 2. Allerru (23 p.); 3. Kostkas-Miren Bihotza (21p.); <b>8. Amaroz (8 p.)</b>	
---	--

Ordizia-Intxurre KKE 1-2

#### SAILKAPENA

1. Irun (26 p.); 2. Santo Tomas Lizeoa (23 p.); 3. Mondragon (20p); <b>4. Intxurre (17 p.)</b>	
--	--

#### ARETO FUTBOLA

##### Nazional A Maila

Castro Urdiales-Lauburu KE 4-5

#### SAILKAPENA

1. Zierbana (54p.); 2. Lauburu KE (49p.); 3. Elemental Peñucas (47p.)	
---	--

##### Nazional B Maila

Laskorain Ikastola - Iturrondo 3-3

Transp. Lakunza - Santurtzi 4-3

#### SAILKAPENA

1. Alerru Algeposa (51p); <b>2. Laskorain Ikastola (49p.); 3. Concepto-Creatch (47p); 8. Transportes Lakunza (30 p.)</b>	
--	--

#### SASKIBALOIA

##### Lehen Maila, jaitsiera fasea

Urdaneta 74

**Bide bide Ibiza TAKE 75**

#### SAILKAPENA

1. TAV. Fundacion Baskonia (7-4); 2. UPNA (7-4); 3. Lagunak (6-5); <b>6. Bide bide Ibiza TAKE (6-5)</b>	
---	--



Tolosarrak Zarauzko taldearen aurkako kanporaketan. HITZA

## Zeharka bada ere Tolosako trindoor taldea finalean dago

### Trindoor Txapelketa »

Tolosarrek bi segundoren gorabeheran lortu dute lauko finalerako txartela.

#### ERREDAKZIOA

Azpeitia, Azkoitia, Markina eta Tolosa, hara hor, Euskadi Irratiko *Hiru Errege Mahaia* saioko Ema-kumezkoen herriarteko Trindoor Txapelketako lau finalistak.

Larunbatean azken final aurrekoa jokatu zuten Azkoitiak eta Gernikak, gipuzkoarrek lehia irabazi eta zuzeneko sailkapena lortu zuten eta bizkaitarrak sailkatzeke zorian izan ziren, 2 segundoren gorabeheran izan baita euren eta

Tolosaren arteko dema. Larunbateko irabazlea zuzenean sailkatzen zen, bigarrenak Tolosak baino denbora hobea egin behar zuten, eta lehen kanporaketako denborek garbi jartzen zuten Azkoitia faborito. Eta horrela izan zen, sari potoloa azkoitiarren eraman zuten etxera.

Tolosa izan zen, zeharka, bigarren saritua. Tentsioa eta emozioa irratiz bestalde, seguru, eta saria sailkapen itxuran. Lauko Finala beraz prest: Azpeitia, Azkoitia, Tolosa eta Markina nor baino nor ari-tuko dira apirilaren 17ko final handian.

Tolosako Trindoor taldea Izaskun Atorrasagasti, Irene Sansbastian eta Amaia Arbillagak osatzen dute.

## Lauburuk garaipen garrantzitsua lortu du etxetik urrun

**Ibarra »** Partida bizia jokatu zuten ibartarrek Castro-Urdialesen aurka. Azkenean 4-5eko garaipena lortu zuten.

#### ERREDAKZIOA

Garaipena eta bigarren postua. Ibarra areto futbol taldeak aurrera pauso garrantzitsua eman zuen asteburuko jardunaldian. Castro Urdiales talde gogorraren etxean jokatu zuen eta 4-5 irabazi zion. Partida handia jokatu zuten ibartarrek.

### Aurretik, atzetik eta aurretik

Partida oso bizi hasi zen. Jokaldi pertsonal baten bidez, Iñigo Arrospidek 0-1ekoa lortu zuen 43.

segundoan. Pozak gutxi irauan zuten ordea, lehen minutuan berdinketaren gola lortu baitzuten etxekoek.

Berdinketarekin Castrokoak kantxaren jabe egin ziren. Aukerak bi aldeetan suertatzen baldin baziren ere, 2-1ekoa etxekoek lortu zuten. Jon Garmendiak binakoa lortu zuen ondoren, baina Castrokoek berriro hartu zuten aurrea.

Markagailuan atzetik ez ziren gehiago ibiliko ibartarrak. Hiru gol sartu zituzten jarraian ondoren, Unai Labaka, Jon Garmendia eta Joseba Balerdiren eskutik. Partidaren amaieran etxekoek laugarrena lortu zuten baina beranduegi zen.

Castrotik ondorioz, Ibarrak hiru puntu garrantzitsu ekarri zituen, bigarren postuarekin batera.

## Tolosako Laskorain Ikastolak lehen postua galdu du

#### ERREDAKZIOA

Aitaren Eguna zela medio eta asteburu luzeari etekina atera nahian, joan den ostiral goizean jokatu zuen Laskorainek denboraldiko 23. jardunaldi zail eta garrantzitsua. Zaila diogi, parean topatutako aurkariaren mailak beste deskribapenik baimentzen ez duela, eta garrantzitsua berriez, aurtengo txapelunaren saria altxatzeko intentzioa duenak, Iturriondo eta bere gisako epaileen auzitegia gaituzte beharrezko delako. Ostiralean, orokorrean, tolosarrek puntu on bat urratu zutela baieztatu daitezke.

Norgehiagoka bizia eta erritmo altuko suertatu zen minutu gehienetan, jabetza berriz, tartekatua. Ikastolako nabarmendu ziren hasieran 2-0eko abantaila dotorea eskuratuaz, gorako lerrotan eginiko presioak Barriola puxika margolariaren bi gol ekarri zituen neurketari itxura ezin hobea emanaz.

Bilbotarrek areto futbolearen erdian badakitela frogatzeko asmotan, emeki-emeki partiduari bere neurria hartzen asmatu zuten, markagailuak islatutako abantaila murriztea erlortu zutelarik, 1-2kogol mingarriak, bi taldekideen zentzumenak aktibatutik mantentzen zirenen oraindik eta atsedendirako unean, gol bateko alde urriarekin aldagaratu ziren jokalariek.

Bigarren erdian, bizkaitarrek emango zuten arropostua presio irteera bati bukaera paregabea eman eta adostasuna ezarri elektronikoan. Une gogorak izan ziren ondorengoak etxekoentzat, kanpotarren 2-3koa berehala etortzeaz gain, Endika atezainak lan ikaragarria egin behar izan baitzuten bere taldea bizirik mantentzeko.

Epaileek jokalarik kanpotar bati bigarren txartel horia erakustean lasaitu ziren apur bat Ikastolakoak, 2 minututako epean kide bat gehiagorekin aukera garden eta oparoak sortu eta atezain bilbotarra sakontasunez behartu zuten etxekoek, kopuruzko gailentasunari etekina atera ez arren, minutu gutxiaren faltan 10 metrotako jaurtiketa baten bidez Barriola izango genuen behin-betiko berdinketa ezarriko zuena, bere *hat-trick*-ak balio ikaragarria izan zuten.

Emaitza honekin lidergoan galdu zuen Laskorainek. Orain dela aste batzuk lortutako abantaila dezentz murriztu zaion arren, norgehiagoka zuten eta erabakigarri ugari gelditzen dira oraindik gorako oilarren artean, honek esan nahi duenez edozein momentutan aldatu daitezke berriro boladaren norabidea. Lanean jarraitzea egokitzuten da oraindik.



Aurrera-Saiaz eta Aurreraren arteko Berria Txapelketaren finalerdia. A. IMAZ

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek **Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak** edo ikasleak behar dituzte lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a [tolosaldean@tolosaldekohitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldekohitza.info) helbidera

# «Muturreko baldintzetan bizitzera gizakia nola ohitu den ikustea oso deigarria da»

**ANDER IZAGIRRE** » Kazetaria eta idazlea

**Gizartea** » Amalur jardunaldien barruan, 'Basamortu biziak?' hitzaldia emango du bihar Topic-en, 20:00etan.

**IÑIGO TERRADILLOS**

Kazetaria, idazlea eta bidaiaria da Ander Izagirre (Donostia, 1976). Erreportaje, liburu eta blogetan kontatu ditu kontinente bakoitzeko sakonenerik baxuenera egindako bidaiak (*Los sotos del mundo*), Espainiari Vespaz emandako itzulia (*Vespasia*) edo burezurrak erailki eta harrien biografik egiten dituztenen profilak (*Cuidadores de mundos*). Bere azken lanetan, Groenlandiako inuitak, Boliviako haur meatzariak eta Saharako errefuxiatuak izan ditu idazgai. Bihar Tolosan izango da, Topic-en, 20:00etatik aurrera, *Basamortu biziak?* hitzaldia ematen, Amalur jardunaldien barruan.

**Zer izango duzu hipzide biharko hitzaldian?**



HITZA

Munduan zehar hainbat bidaiak egin ditut, eta horietan basamortu ugariekin egin dut topo. Basamortuetako bizimodua gertutik ikusteko aukera izan dut, eta horietako batzuk adibide bezala hartuta, gordetzen dituzten istorio eta

bizimodu bitxiak kontatuko ditut hitzaldian.

**Basamortu mota desberdinak ezagutu ahal izan dituzu.**

Bai, baina azkenean, antzekotasunak dituztela konturatu naiz. Geografikoki oso desberdinak izan

daitezke: batzuk oso beroak dira, eta beste batzuk oso hotzak, hondarrezkoak, gatzezkoak edota izotzezkoak izan daitezke. Baina, azken finean, guztietan muturreko baldintzak daude, eta horregatik, bertan bizi diren gizakien bizimo-

duetan antzekotasunak daude. Niretzat oso deigarria eta harrigarria izan da ikustea gizakia nola ohitu den baldintza horietan bizitzera. Alde horretatik, guri munduko eremu erraz batean bizitzea egokitu zaigula esan genezake; izan ere, guretzat pentsaezinak direnak

**«Basamortuak oso desberdinak izan arren, bertako bizimoduek antzekotasunak dituzte»**

ikusi ditut, gatz hartuta gameluz basamortua zeharkatzen duten nomaden kasua, edota izotzetan bizi diren Groenlandiako unuina, esaterako.

**Egin dituzun bidaietatik baten bat aukeratu beharko bazenu?**

Oso zaila da bat aukeratzera. Paisaiari dagokionez, Groenlandia aukeratu nuke, bertan dagoen isolamendu geografikoarengatik, inguruan ezer ez dagoenaren sentsazioa duzu uneoro. Bestalde, alde gizatiarrari dagokionez, Bolivia esango nuke, bertan ia-ia esklaiboak bezala lanean ari direla haurrak meategietan ikusi nuen, eta hori oso gogorra izan zen.

**Nora egingo duzu hurrengo bidaiak?**

Oraindik ez dut erabat zehaztuta, baina badakit mendi alturen batera izango dela.

**Teknologia** »

Antolatzaileek eta parte-hartzaileek balantze «baikorra» egin dute topaketaz.

**ERREDAKZIOA**

Baikor ekin zion Gipuzkoa Encounter 4 topaketak izen-ematea zabaldu eta gutxira bete egin baitzen. Eta baikorraizan da hiruro eguneko ekimenaz antolatzaileek egin duten balantzea, «erreferentziako party bezala sendotu dela esan daitekeelarik». Batez ere, aurtengo parte hartze-maila azpimarratu dute, «2009ko antzeko partaide kopurua izan arren, nabarmen handitu baita lehiaketetan, txapelketetan eta bestelako ekin-tza ludikoetan parte hartu duten pertsonen kopurua».

**Berrikuntzekin frogatzen**

Tolosako topaketa teknologiaz auzen berrikuntzak probatzeko erabili ohi dute, eta horrela izan da aurtengoan ere, Gipuzkoa eta Euskal Encounterreko arduradunek garatzen ari diren aplikazio bat frogatu baitute. Mota honetako party-etan, ordenagailuak sare birtual edo WLAN ezberdinetan antolatuta daude eta horietako bakoitzean kokatuak dauden erabil-tzaileek partida bera jokatu dezakete. Baina zona ezberdinetan dauden aparatuek ezin dute joko bera ikusi edo horretan parte

# «Erreferentziako 'party' bezala» sendotu da Gipuzkoa Encounter

hartu. Herenegun gauean «arrakastarekin» martxan jarri zen sistema berriari esker, oztopo hori gainditu daiteke eta partaide kopuru mugagabearekin eta zona guztietan jarraitu daitezkeen partidak egin daitezke.

**Parte-hartzaileak «gustura»**

Era berean, arduradunek aditzera eman dute party-an izan direnak «oso gustura» egon direla Tolosan, eta, beraz, helburutzat dutela bosgarren edizioa ere bertan antolatzera, «baita topaketaren kalitatea hobetzearen aldeko apustuarekin jarraitzea ere». «Positiboa» izan da, baita ere, ekitaldiaren lantaldean parte hartu duten Tolosaldea Lanbide Heziketa zentroko ikasleek balorazioa. Sistema Informatikoen Administrazio ikasleak asteazkenetik izan dira party-an sare guztiak prestatzen eta parte-hartzaileen behar teknikoei erantzuten. Hurrengo urtean esperientzia errepikatzea espero dute la adierazi dute.

Gipuzkoa Encounter topaketa herenegun egin zen sari banaketarekin amaitu zen. Hainbat salletan banatu zituzten, eta horien artean, Modding lan onenari emandakoa, Ciberfrikik irabazi zuen.



Gipuzkoa Encounter 4 topaketako lehiaketetako irabazleak. HITZA

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

**LANA**

■ **Ileapaintzailea.** Ibarrako ileapaindegi batek laguntzaile behar du. Interesatuak idatz dezatela [metxa2@yahoo.es](mailto:metxa2@yahoo.es) helbidera.

■ **Zerbitzaria.** Sukaldari, zerbitzari, okin edo gozogle bezala lan egingo nuke. Eskarmentuduna. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 662 49 40 78.



# 'Zutik Euskal Herria' agiria aurkeztuko dute datozen egunetan

**Politika** » Ezker abertzaleak batzarrak egingo ditu Tolosaldeko hainbat herritan; Tolosan gaur izango da aurkezpena.

## ERREDAKZIOA

Ezker abertzaleak *Zutik Euskal Herria* agiria zabaltzeko batzarrak egingo ditu datozen egunetan eskualdeko hainbat herritan. Atzo izan zen lehena, Gaztelun, eta gaur bertan Tolosaren txanda izango da (20:00etan Udaletxeko Pleno Aretoan).

«Ezker abertzaleak azken hila-beteetan eman duen eztabaida prozesua sakona izan da, helburu argi batekin egindakoa, independentziari bide emango dion agertoki demokratikoa irabaztea», argitu dute.

Ezker abertzalearen aburuz, «agorturiko fase politikoa» gaudela eta ondorioz, «aldaketa beharrezkoa» dela nabarmendu dute. «Aldaketa politikoa termino de-

mokratikoetan gauzatzea dugu helburu», gaineratu dute.

## «Guztion konpromisoa beharrezkoa da»

«Prozesu honetan zabaldu den fase politikoa borrokarako eta lanerako fasea da eta guztion konpromisoa beharrezkoa da, prozesua sustengatzeko oinarrietako bat herritarren parte-hartzea baita», argitu dute.

«Horregatik dei egiten diegu herritarrei datozen egunetan Tolosaldeko eskualdean egingo diren batzarretan parte hartzera orain artekoak aurkeztu eta hemendik aurrerako pausoak tratatuko baitarra», zehaztu dute.

## » AURKEZPENAK

- **Tolosa.** Gaur Udaletxeko Pleno Aretoan 20:00etan.
- **Villabona-Amasa.** Bihar Villabonako Pleno Aretoan 20:00etatik aurrera.
- **Ibarra.** Etzi Subegi elkartearen, 19:30ean.



Ezker abertzaleak 'Zutik Euskal Herria' agiria ari da aurkezten. HITZA

- **Aduna.** Etzi Kultur Aretoan, 20:00etan.
- **Zizurkil.** Etzi Iriarten 20:30etan.
- **Asteasu.** Etzi Kultur Etxean, 21:00etan.
- **Orexa.** Hilak 26, ostirala, Ganbaran 22:00etan.

- **Anoeta.** Hilak 27, larunbata, Udaletxean, 11:00etan.
- **Ikaztegieta.** Hilak 27, larunbata, Kultur Etxean, 11:00etan.
- **Amezketeta.** Hilak 18, igandean, erabilera anitzeko aretoan, 11:30etik aurrera.

## Laburrak

### Aberri Egunerako kartelak jartzeko deia

**TOLOSA** » Eratu berria den Independentistak sareak, Euskal Herriaren independentziaren aldeko sareak, alegia, argitu duenez datorren apirilaren 4ko Aberri Egunerako deialdia egin eta Aberri Eguna ahalik eta zabalena eta jendetsuena izan dadin saiaturiko da. Horretarako, Aberri Egunerako publizitate banaketaz arduratuko da, Tolosaldeko bazter guztietara iritsi dadin. Horregatik, dei egiten die kartelak auzo eta herrietan jartzeko prest leudekeen guztiei gaur bertan, 19:30ean, Tolosaldeko Udaletxeko arkupean kartelen bila pasa daitezen.

### Tolosaldeko 'Herria abian!' plataformaren batzarra

**TOLOSA** » Tolosaldeko *Herria Abian!* aldaketa sozialaren alde lan egiten duen plataformak batzarra egingo du bihar, asteazkena, 19:30ean Bonberenean. Batzar irekia izango da eta ahal den jende gehiena biltzea dute helburu, hartara «aldaketarako abiapuntua» guztien artean zehaztu ahal izateko. *Herria abian!* «krisia delakoan aitzakian pairatzen ari garen erasoaldi atzerakoiari aurre egiteko, aldaketa sozialaren alde sortu dugun herri plataformak» dela argitu dute. Era berean, «indar metaketarako gunea» dela gaineratu dute.



## harpidedun izateak badu saria

### ① Erromeria

Udaberri dantza taldearen Erromeriaren baitan, **afarirako ticket pare bat**


Martxoak 27 larunbata  
Tolosako zerkausion



### ② Bertso saioa

Tolosaldea Sahararekin elkarteak antolatua  
**4 sarrera pare**

Martxoak 28 igandea  
Tolosako Beotibar pilotalekuan



### ③ Sarrerak

Mokoloren omenez ospatuko den jaialdirako **sarrera pare bat**

Apirilak 17 Larunbata  
12:00etatik aurrera  
Tolosako Leidorren



### ④ Sarrerak

KEN 7 taldeak eskeiniko duen kontzerturako **2 sarrera pare**

Apirilak 23 ostirala  
20:30etatik aurrera  
Tolosako Leidorren





Bidegoian herriaren atzean, Ernio mendia. E. MAIZ

## Ernio-Gazume Europako ingurumen balio handiko guneen sarean dago

**Ingurugiroa** » Ingurua Natura 2000 sarearen baitan dago eta ondorioz informazio-batzarrak ari dira egiten hainbat herritan.

### ENERITZ MAIZ

Ernio-Gazumeko eremua, Europako ingurumen balio handiko guneen Natura 2000 sarean dago eta bertako biodibertsitatea babesteko plana garatzen ari da egun Eusko Jaurlaritzak.

Eremu horren barruan lurrak dituzten honako herri hauek aurkitzen dira: Aia, Albiztur, Alkiza,

Asteasu, Bidegoian, Errezil, Hernialde, Larraul eta Tolosa. Aia eta Errezil ez gainontzeko beste herriak, eskualdekoak dira. Hori dela eta, herritarrei zuzenduriko informazio-batzarrak egiten ari dira. Atzo, Albizturren egin zuten eta gaur 19:00etan Asteasuko Udalean bilduko dira.

Bertan Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Saileko teknikaria den Marta Rozas eta plan hau garatzen ari den Ostadar enpresako Alberto Jimenez eta Cristina Alfonso kideak ere bertan izango dira.

Plan hori ahalik eta aberatsena izan dadin herritarren partaidetza

ezinbestekoa da eta horretarako Ernio-Gazume barruan kokatzen diren udalerrietako biztanleriarekin batzarrak ospatuko dira.

Ernio-Gazume bezalako babespen bereziko eremuetan (BBE) bizi diren espezieak eta euren habitata zein egoeratan dauden eta hauek babesteko zein neurri hartzen diren zehazten da plan honen bitartez. Eta batzar hauen helburua espezieak babesteko neurri hauen inguruan herritarren ahotsa entzutea da. Beraiei iritzi eta iradokizunak, modu zabal batean plan honetan bilduko dituzte.

Bilera informatibo horien ondoren, gune horiekien zerikusia edota

interesa duen edonorekin neurri horiei buruz eztabaidatzeko parte-hartze tailerrak egingo dira. Tolosaldea Garatzenetik jakinarazi dutenez, norbaitek tailer horietan parte-hartu nahiko balu, Tolosaldea Garatzekin edo bere herriko Udalarekin harremanetan jarri baino ez du egin behar.

### Natura 2000 sareak

Natura 2000 Sarea, Europar Batasuneko flora, fauna eta ekosistema adierazgarrienak kontserbatzeko eremuen hautaketa bat da, aldi berrean, bertan bizi diren bizi kalitatea hobetzen laguntzen duena. Europar Batasuneko Babespen

### » GAUR BATZARRA

#### 19:00etan Asteasun

■ **Helburua.** Ezinbestekoa da herritarren partaidetza izatea batzarraren. Iritziak eta iradokizunak jasotzea da helburua, herritarren ahotsa entzunez.

■ **Natura 2000 sarean.** Aia, Albiztur, Alkiza, Asteasu, Bidegoian, Errezil, Hernialde, Larraul eta Tolosa daude.

■ **Informatzaileak.** Ostadar enpresako Alberto Jimenez eta Cristina Alfonso eta Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate Saileko teknikaria den Marta Rozas.

Bereziko Eremuek (BBE) eta Hegaztien Babespen Bereziko Eremuek (HBBE) osatzen dute Natura 2000 Sarea.

Biodibertsitatearen galera geldiarazteko proiektu garrantzitsua da hau eta eraikitze lanean dagoen proiektu kolektiboa. EAEn 52 Babespen Bereziko Eremu daude, hauetatik 19, Gipuzkoan.

Natura 2000 sareak Europako natur gune adierazgarrien sarean izan nahi du, horrela, natur gune horiek pairatzen ari diren degradazioari aurre egiteko. Natura 2000 sareak bi arlo izango ditu: hegaztien babesgune bereziak eta babes bereziko eremuak. Lehenak izendatuta daude eta bigarrenak Natura 2000 sarearen eskutik hurrengo urteetan izendatu beharrekoak dira.

Euskal Herrian, Europako Batasunarentzat interesgarri diren hainbat landare eta animalia espezie daude. Zortzi eskualde klimatikotan banatu da Europa: mediterranea, atlantiko, Europako erdialdekoa, alpinoa, boreala, panonikoa, estepikoa eta makaronesikoa (Atlantikoko uharteak). Eskualde klimatiko horiek Europako Batasuneko herrialde guztiak hartzen dituzte kontuan. Euskal Herrian kasuan, hiru eskualde klimatiko daude; atlantiko, mediterranea eta alpinoa.

## Herri galdeketaren bigarren saioa Amaratzen

**Gizartea** » Gaur eta bihar, 19:15ean elkarteko egoitzan, gaiak lehenetsi eta etorkizunerako lanak finkatuko dituzte.

### E. MAIZ

Amarotz auzoan urtarrean egin zuten galdeketa eta orain, orduan jasotakoak bildu eta ekarpenen inguruko datuak ikusi eta ondorioak ateratzeko aukera izango dute. Kontsultan 300 bat bizilagunen partaidetza izan zen; 525 ekarpen eta 83 etorkizunerako herriarekikoak izan ziren.

Auzoaren inguruko galdeketak gai desberdinen inguruan egin zi-



Auzo galdeketa egunean, auzotar asko pasa zen bertatik. HITZA

ren, eta hala, kultura, aisialdia, kirolak, heziketa, garbiketa, trafikoa, komunikabideak, garraio publikoa, osasuna eta auzoko merkataritzarako sustapena izan ziren panel desberdinetan landurikoak.

Herri mailan egin zen galdeketa berriz, etorkizuneko herria nola irudikatu galdetu zitzaizkien: merkataritza eta enplegua, aisialdia eta kirola, ingurugiro naturala, harreman sozialak, etxebizitza, zerbitzu eta ekipamenduak.

Galdeketa irekiaz gainera, bigaldera zehatz luzatu ziren: batetik, Auzoko Elkartean inguruan eta bestetik, herri mailan hartzen diren erabaki esanguratsuen inguruan udal txekak herriari galdetu beharko liokeen hala ez, bestetik.

### Bigarren saioa gaur eta bihar

Bigarren saiorako ordua da eta gaur eta biharko hitzorduak finkatu dituzte. Hala, gaur 19:15ean elkarteko egoitzan, auzotar guztiak lorturiko emaitzen inguruan lehenetsunak ezartzeko aukera izango dute. Gai garrantzitsuenak lehenetsiko dituzte eta hurrengo egunean, hau da, asteazkenean, Parte Hartuz-eko kideen laguntzarekin, etorkizunerako lanen nondik-norakoak finkatuko dituzte. Hurrengo pausua, teoriar jasotako praktikara eramatea izango da.

Bigarren saioa amaitu eta ekarpen guztiak jasotzean, bizilagun guztiak ekimen honen berri izateko, guztiaren berri emango dute.

# Hurrengo udaberrira arte itxaron behar errepikatzen



Ostirlean herriko gazteen artean futbol partidak jokatu zituzten; alde batetik neskena, eta bestetik, mutilena. E.M.

**Berastegi** » Asteburuan ospatu dituzte Urepel elkarteak antolatutako Gazte Festak; gustura daude antolatzaileak.

## ERREDAKZIOA

Joan den ostegunean, pala kolpekin hasitako jaiei dantzarako erritmoek eman zioten amaiera larunbat goizaldean. Igandean batzuk jaietako azken arrastoak garbitzen zituzten bitartean, beste batzuek biharamunari egin behar izan zioten aurre.

Urepel elkarteak antolatutako Gazte Festek aztoratu dute asteburu luze hau. Hiru egunetako jai giroaren ostean, gustura agertu dira antolatzaileak, aurtengo ekitaldiek eman dutenarekin.

Aipatu bezala, pala txapelketa finalekin eman zieten hasiera Gazte Festei. Hemen ia zozko irabazleak izan ziren garaile berriro ere. Binakakoan, Iker Saizar eta Aritz Mujikak osatutako bikoteak eraman zuen txapela. Banakakoan, berriro, irabazlea errepikatu zen,

Iker Saizar gailendu baitzitzaien Xabi Barriolari.

Kirol ekitaldiei, kulturakoek eman zieten jarraipena. Herriko antzerki taldeak bere azken emaldia aurkeztu zuen, eta kiroldegian entzundako txalo zaparradaren arabera, arrakasta handiz gainera. Jende lepoko bete zen aretoa, askok zutik ere egon behar izan zutelarik saioan zehar. Barreak nagusi izan ziren emaldia guztian, eta baita hainbat zurrumuru ere, herriar asko islaturik sentitu baitziren eszena askotan.

Iban Agirrezabalak, antzerki taldeko kide berriak, bere lehen emaldia zela ohartarazi zuen saioaren hasieran. Hala, kasting-a pasatzeko gai izango ote zengaldez hasi zuten ikuskizuna. Erabakia publikoaren esku zegoen, eta emaldia eraman ahal izan zuten, proba pasa al zuten galdetean, denek aho batez baiezkoa erantzun zuten. Beraz, herriarren onarpena bada.

Ostegunari amaiera musikarekin eman zioten. Lehen eguneko rock doinuak entzun ziren Gazte- en Biltokian. Hurrengoetan berriro, erromeria giroa zabaldu zen

frontoian. Urepel elkartearen esanetan, «oro har herriko jendea ibili da festa hauetan». Hala ere, gauean, inguruko herrietako bizilagunak ere gerturatu zirela azaldu zuten.

Ostirlean, Berastegiko neska eta mutilen arteko futbol partidak izan ziren arratsaldean. Gero herri afaria eta musika.

Larunbatean, sagardo datatzea izan zen ekitaldi jendetsuena. Urruzola, Eula, Zabala, Aburuza eta Oianume sagardotegietatik ekarri zuten edatekoa. Honi laguntzeko, pintxoak banatu zituzten. Hauek arrakasta izan zuten, eta denak amaitu ziren. Jarraian toka txapelketa jokatu zen, eta hemen Iñigo Gorostarzu izan zen garaile. Jaiei amaiera emateko, Jalis-ko Bandek markatu zituen dantzarako erritmoak.

Honenbestez, datorren urtera arte itxaron beharko dute Berastegiko gazteek berriro Gazte Festez gozatzeko. Urte amaieran Urepel elkartearen urteurrenarekin batera, elkarteak batzordea aldatuko da, eta hurrengo arduratuko da 2011ko Gazte Festak antolatzeaz.

# Sarin arrastean



## » Herrira begira

**Aimar Sagastibeltza**  
Futbol jokalaria

Tenporadako puntu onenengandea azken zortzi partiduk irabazi ditu. Bigarren seitezu, beño liderak urrutik ikustetik bi puntuta eukitzea pasa ga. Hortxe dauzkeu. Itxurez, bi taldeen arteko buruz-burukoa izanen da Liga. Oingo egoeran aiatzen bada bukaerara a ze finala izanen den azken partidue. Izane, elkarren kontra jokatu zuten baita liga (hain etxan). Hil edo biziko partiduhok eotek ematen dio futbolai xarma! Dena den, aurretik 9 final gelditzen zaizkiu, gero gerokoak.

Hontazkeo, nere aspektu bat attatu behat. Kirol arloan pertsona baikor ikeragarrie naiz barrendik, erronka zale amorratue, exijentea. Diote eztenare sinistatuazi izan diot nere burui, orgulloso xamarra izateatik akaso. Beharbada sarritan "listona" goratxo jarri izan

belarrondoko askotxo suposatu dizkit. Beño bueno, ezta ba, halaxe naiz. Hau esanda, aurtengoan 2.B mallara igotzea behar da pentsetzet. Paren jartzen den ekipoa kanpoa botakou. Hala ez baldin bada, denak etxera.

Futbola alde batea utziz, joan den ostia eun oso pozgarrie izan zen Barriolantza, eta ondorioz leitar guzintzat eta beste hainbat ta hainbatentzat. Inork uste beño hobekio aittu zen aspektu guztian, konpleto. Ilusionantea. Oain konfiantza hartu eta lesioakin suertea eukitzea da inporta don bakarra, gaiontzekoa etorriko zaio.

Pillotan ingurun seittuz, binakaburuz txapelketa bukatzeaz dau. Nahiz ta ez naizen bereziki asmatzale oso ona, pronostikoak in zale amorratue naiz. Hemen nere: Xala-Zubietak irabaztea nahigo badote, Titin-Pascualek irabaziko due finala. Jokatu suelto hain alde jeje.

Azkenik, notizibeltz batekin bukatu behat; izane, aurre hontan Leitzeo "Musun" baserrie erre zen. Laguntza gisen herrin antolatutako hainbat ekitaldi polit izan omen izan den asteburun eta jenden erantzune aipagarrie. Pena diot gise hontako "kolaboraziopestan" parte hartu ezin izana.

## Laburrak

### Alurrekoak Zaldibian izango dira larunbatean

**IBARRA** » Alurr Dantza Taldeak Zaldibian eskainiko du emaldia larunbatean, hilak 27. Taldeko gazteak ariko dira, 11 urtetik 15 urtera bitartekoak, eta plazan egingo dute dantza herriko dantza taldearekin batera 19:00etatik aurrera. Zaldibiako Guraso elkarteak antolatzen du urtero festa Dantzari Txiki Egunaren bezperan.

### Sahararen aldeko bertso jaialdirako sarrerak salgai

**TOLOSA** » Tolosaldea Sahararekin elkarteak antolatutako bertso jaialdia izango da igande honetan Beotibarren. 18:00etan hasiko da jaialdia. Hara joan nahi dutenentzat sarrerak salgai daude hamar eurotan Tolosako Ikatz, Orbela eta Raku tabernetan; Lasarteoko Jalgi tabernan eta Azpeitiako Eliku zentroan.

## Hilberria

### MARTINA ARRITTEGI MATXINANDIARENA

ANDREA

(JOSE ANTONIO ALTUNA-REN ALARGUNA)

Atzo hil zen, 85 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Gauero izkutatzen da eguzkia itsaso aldetik baina zu ez zara aldetik gure bihotzetik

**Zure bilobak:** Omar eta Anita, Iker eta Mirian, Beñat, Xabat eta Maitane, Garazi, Manex.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Lizartzako SANTA KATALINA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Txirrit plaza, 5-2, B.

Oharra: Gorputz beila Tolosako TANATORIO ORIAN (Usabal poligonoa) goizeko 11:30ak arte egongo da.



LIZARTZA

2010eko martxoaren 23a

### TOMAS KATARAIN URTEAGA

Herenegun hil zen, 86 urterekin, Elizakoak eta

Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Anai-arrebak: Kontxi (†) eta Joakin Iparragirre (†), Manuela eta Andres Aldasoro, Luis, Joxe, Romualdo, Ixabel, Maria (†), Pedro eta Maritxu Azaldegui, Lourdes, Ilobak, Iloba-bilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko ZAZPIETAN MIKEL GOIANGERUAREN parroki elizan, gorpua aurrean dela egingo den hiletara. Eskerrik asko guztioi aldez aurretik.

Helbidea: Aritz-Eder baserria

Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri beilatokian egongo da



IDIAZABAL

2010eko martxoaren 23a



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



**E Elkarrizketa****FELIX IRAZUSTABARRENA** > Bertsozalea

L. GARCIA

## «Hamar urte hauetan ikaragarri hazi da Bertsozale Elkarteak»

**Alegia** » Irazustabarrena bertsoaritzari lotuta bizi da: lanbidea, aisialdia eta militantzia bertsoaren munduan topatzen ditu alegiarrak.

**IMANOL GARCIA**

Hamar urte bete ditu Felix Irazustabarrena (Alegia, 1961) Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen lehendakari karguan. Egin berri den elkarteak batzarrean Saroi Jauregik hartu du lan hori. Bertsoaritzari erabat lotuta bizi da alegiarrak. Egia esan, kargu hartu du lan hori. Lehen Jauregi zen idazkaria eta orain Irazustabarrenaren hartu du lan hori. Bertsoaritzari erabat lotuta bizi da alegiarrak. *Hitzetik hortzera* telebista saioa egitea da bere lana. Aisialdia herriko bertso-eskolarekin lotzen du eta militantzia bertsozale elkartearekin. «Bizioa-edo izango da», dio.

**Nola izan da lehendakari karguaren aldaketa?**

Aurten ez zen berez aldaketarik tokatzen, baina hamar urte bete ditudanez, zenbakia ere borobila zelako, aldaketa ondo etorriko zela pentsatu genuen. Gainera, ematen du norbait lehendakari jartzen denean betirako izaten dela edo erreten den arte irauten duela. Beraz, zerbait naturala egin nahi genuen eta zuzendaritzatik prest zegoen norbait kargu hori hartzeko, eta aldatzea pentsatu nuen. Saroi Jauregi idazkari lanetan aritu da. Bera da orain lehendakaria eta nik idazkari kargu hartuko dut.

**Hamar urte hauetan zer balantze egiten duzu?**

Pertsonala, oso ona. Askotan eman dit behintzat. Jende asko ibili da hor lanean, proiektuan eta borondatze lan batean sinesten dugulako. Gure lanaren balantzeari dagokionez, nik orokorrean oso ona egiten dut, baina hori beharbada besteek esan behako dute. Hamar urte hauetan ikaragarri hazi da Gipuzkoako elkarteak. Ni sartu nintzenean, pertsonabat zegoen lanean eta hura egun erdiz. Gaur egun hamabi daude lanean jardunaldi osoz, batez ere irakaskuntzako proiektua dagoelako. Aurrekontuari dagokionez ez naiz gogoratzen zenbatekoa zen orduan, baina gaurko orduko 30 izango da. 500.000 euro inguruko aurrekontua du Elkarteak. Garai hartan ez genuen lokalik. Orduan Euskal Herriko Elkartearen egoitzaren bulego batean geunden, Donostian, eta egun Tolosan egoitza dugu eta txiki geratzen ari zaigu. Hazkuntza horrek emaitza ikusgarriak ekarri ditu, transmisioan batez ere, hezkuntzan zein bertso eskolatan.

**Zein izaten da elkarrean jarduna? Kanpotik jaso ohi da bertso txapelketak bakarrik antolatzen dituzue.**

Orokorrean, gure elkarrean zein beste bertsozale elkarrean, hiru ardatz dituzte: transmisioa, eta hor

sartzen da hezkuntza arautua eta bertso eskolak, bertsoaritzaren geroztarearen aldeko lan hori; hedapena, eta hor sartzen ditugu txapelketak, plazazak...; eta beste da ikerkuntza, hau da, materiala jaso Xepelar dokumentazio zentrorako, gero ikerkuntzak bideratzeko. Transmisioaren alorra da nagusia. Honek eramanen du aurrekontutik %80a.

**Zer lan egiten duzue hor?**

Alor horretan sartzen da irakaskuntza proiektua. Gure irakasleak hamabost egunean behin joaten dira bertsoaritzaren ematerik ikaste-txe bakoitzera eta gero hurrengo astean ikasleek bere irakasleekin lan egiten dute jasotakoak. Horren helburua ez da bakarrik bertsoaritzaren transmititzea, baizik bertsoaritzaren erabilte bestea hainbat gauza erakusteko, ahozkoasuna eta hizkuntza, adibidez. Hamar irakasle ditugu proiektu horretan lanean, eta bakoitzak eskualde bat hartzen du. Ia Gipuzkoa osoa har-

**«8.000 ikaslerentzako zerbait egiten zaude eta hori erantzukizunaren aldetik ikaragarria da»**

tzen du proiektu horrek, dozena bat herri ezik. Transmisioak beste zati bat du, bertso eskolena.

**Nola funtzionatzen dute horiek?**

Autonomoki funtzionatzen dute, eta gu saiatzeko gara irakasleen bitartez bertso eskola horiek sustatzea, piztea, helduei erakustea kla-

seak nola eman. Eta transmisioaren hirugarren ardatza jardueraren osagarria da: aisialdia, bertso-paper lehiaketak, udalekuak, Bertso Eskola Eguna... Orain arte hezkuntza arautukoak hartu du lan ikaragarria. 8.000 ikasle baino gehiagotara iristen gara. Urte pare batetik hona hasi gara lan hori bertso eskolatarantz. Eskola horiek dira jardueraren osagarriak bultzatzen dituztenak.

**Orain hamar urte ez zenuten pentsatuko kopuru horietara iritsiko zinetenik.**

Ezta pentsatu ere. Ideia bazegoen horretara jo behar zuela. Nik uste dut bidea egin dugula ikasiz eta pausoak emanez. Orain da garaia beldur pixka bat ematen duena. 8.000 lagunentzako zerbait egiten, zaude, Euskal Herriari eta kasu honetan Gipuzkoari eredu batzuk transmititzen, eta hori, erantzukizunaren aldetik, bolumen aldetik, aurrekontu aldetik, ikaragarria da. Ematen du kezka gauzak ondo egiteko. Bestela, osasun aldetik ikaragarria da.

**Non daude eskualdean bertso eskolak?**

Ikaztegiatan, Alegian, Amezketan, Ibarran, Lizartzan, Berastegin, Tolosan, Villabonan eta Asteasun. Batzuetan helduen bertso-eskolak daude eta horiek bultzatu eta elikatzen dituzte haurren bertso-eskolak eta horiek izango dira gero helduena osatuko dutenak eta herriko dinamika eramango dutenak. Horri deitzen diogu bertso-eskola garatu zateza herri batean.

Gure helburua da horiek sortzea. Batzuetan haurren eskolak bakarrik daude eta orain sortu behar da helduena, eta beste batzuetan alderantziz. Fase horretan gaude.

**Txapelketek dagokionez, sekulako arrakasta izaten ari dira.**

Nik uste dut arrakasta handiena, bai txapelketetan eta, ausartuko nintzateke esatera hezkuntzan ere, osparena dela. Hau da, Txapelketek zilegitasun handi bat ematen ari zaizkigu herritarren aurrean, lana xume baina ondo

**«Txapelketek eta hezkuntzak zilegitasun handia ematen digute herritarren aurrean»**

egitearena. Ez da bakarrik milaka lagun joatea saioetara, baita ondo antolatzea, komunikabideetan irudi ona ematea, bertsoari berea eredu propioa landu eta besteekin ematea... Eta hezkuntzan ere hori gertatzen da. Harreman zuzena dugu ikastetxeekin eta udalekin, eta egiten diren bileretan denak zorrotzen daude, besteak beste, lana ondo egiten ari garela eta iruditzen zaigulako bertsoaritzaren tresna garrantzitsua eta erabilgarria dela hezkuntzarako.

**Marketinaren aldetik ere oso ondo funtzionatzen dute txapelketek.**

Hori esperientziak ematen du. Urte asko darमतazagu txapelketak horrela antolatzen eta jende askok parte hartzen du. 2011ko abenduan jokatu den Gipuzkoako Txapelketa antolatzen hasi gara. Udaberrian talde antolatzaile bat martxan jarri nahi da. Jende asko dago borondatez eta horretan lanean eta gauzak planifikatu egiten ditugu. Urte eta erdi aurretik lanean hastean gara. Gero komunikazioan trebatuta dagoen jendea sartu da eta taldean bertsoari izanirik sortzaile asko daude gauzak proposatzeko.

**Aurrera begira zer hausnarketa egiten duzue?**

Memento honetan hezkuntza arautuaren proiektua ia Gipuzkoa osoan hedatuta dago. Hor zabal-kunde handirik ez da emango. Bertso-ekolen atalari dagokionez, badago proiektu bat aurten hasi nahi duguna martxan jartzen: hezkuntza arautuan lanean dabil-tzan irakasleak hobeto antolatuta denbora bat dedikatzea bertso-ekolen atalari. Alor horretan eskualde bakoitzean zer falta den aztertu dugu. Herri bakoitzean bertso-ekola garatu bat izatea izango litzateke helburua, non haurren eta helduen bertso eskolak dauden, bata bestea elikatzen duena, eta gero herriko bertsoaritzaren dinamizatzeko duena. Hezkuntza arautuan nahiko genuke hezkuntzak berak proiektua hartzea. Bertsoaritzak berez egun beharko luke hezkuntzan txertatuta, ematen dituen aukerak baliatuzko.



21°  
12°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	20°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_publicidad@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 118. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaledeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Batzarra

■ **Tolosa.** Zutik Euskal Herria ekimenaren batzarra udal areto nagusian 20:00etan.

### Ikastaroak

■ **Alegia.** Guraso eta seme-alaben heziketa emozionala tailerra, 14:15etatik 16:00etara, eskolako patioan liburutegian. Gaiak: adimenaren edo adimenen auszia, trebetasun emozionalak, gizarte trebetasunak, emozioa...

■ **Aduna.** Defentsa pertsonaleko ikastaroa hilaren 27an eta 28an. Izena emateko: 943-69 39 30.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.

■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

### » IRRATIA

**Txolarre Irratia**  
**(FM 107.5 eta 101.2)**

**11:00.** Tolosaldeko Ahotsa: albistegia, magazina, lehiaketa eta disko eskainiak. **13:30.** Info 7: eguerdiko albistegi nagusia. **14:00.** Tolosaldeko Ahotsa: albistegia.

**16:00.** Arrosa: Celosamente Gorda (HBI). **17:00.** Kabitik Plazara.

**18:00.** Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena): magazina eta albistegia. **20:00.** Info 7: Iluntzeko albistegi nagusia. **21:00.** Mintzatzen.

### » TELEBISTA

**28 Kanala**

**16:30.** Ur eta lur. **17:00.** Alex eta Alexis. **17:30.** Tolosaldean Gaur.

**18:00.** Gipuzkoa Encounter.

**18:30.** Ilunpean. **19:00.** Erlo klip

**19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.**

La Betty Travan.

(Bloke4 4 ordu errepikatuko da)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



## Euskal Herria plazan udaberriaren zain

**TOLOSA** • Udaberriaren lehen egunetan eguraldiari begira jarraitzen dugu oraindik. Euskal Herria plaza ere egoera berean aurkitzen da. «Berreskuratze» lanak amaitu ondoren, udaberriko lehen loreak aulki handietan nola esertzen ziren ikusi zitezkeen atzokoan. Inguruko tabernetako terra-

zak ere autoen falta ez zuten inondik ere faltan bota. Urtarrilean hasitako lanak, lurraren eta hiri altzari berriek kokapenak, amaitu dira. Arduradunen hitzetan lanen helburu nagusia «Tolosako Hirigune Historikoko espazio ezagun eta opsetu hau oinezkoentzat berreskuratzea» izan da. A.A.

## A Agurrak



**Urte askoan Saia eta Irune!**

**Saia eta Irune Arrospeide Goikoetxehandia (Lizartza).** Gure matraka pare honek atzo 8 urte, muku pila familia guztiaren partetik!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak  
jaiaberriak - jaunartzeak...

Mesede, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

hitza

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

\_\_\_\_\_